



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko martxoaren 22a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da kontuan har dezan, Irakaskuntzako Funtzio Publikoaren Estatutuan, lizentziatu-mailako titulazioa duten Haur eta Lehen Hezkuntzako kidegoko irakasleen promozioa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Justizia Jauregiko kanpo errotulazioa euskaraz ere para dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako karobien katalogoa egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako Odol Transfusioen Zentroko laborategiaren egoera azter dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zelulen eta ehunen banku publikoa sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du N-1 eta A-15 autobietako eta N-121-A errepideko bidesari-kobrantza. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako erakunde publiko guztiak premiatzen ditu laikotasunaren aldeko urratsak egin ditzaten. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait azpiegitura bukatzeko epea ezartze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zer ari den egiten Kultura eta Turismo Departamentua Madrileko Reina Sofia Museoa egun dagoen “Encuentros de Pamplona 72” erakusketa Nafarroan ere ikusteko aukera izan dezagun. Galdera erretiratzea (7. or.).
- Galdera, Arradako Kontzejuko osasun arloko zerbitzuaren egoerari buruzkoa. Galdera erretiratzea (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 13/2010 Ebazpena, martxoaren 15koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarena. Horren bidez, María Medina García andrea Arartekoaren ahokulari tekniko izendatzen da (8. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 2010eko otsailaren 8koa, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzeari buruzkoa. Akats zuzenketa (8. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da kontuan har dezan, Irakaskuntzako Funtzio Publikoaren Estatutuan, lizentziatu-mailako titulazioa duten Haur eta Lehen Hezkuntzako kidegoko irakasleen promozioa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da kontuan har dezan, Irakaskuntzako Funtzio Publikoaren Estatutuan, lizentziatu-mailako titulazioa duten Haur eta Lehen Hezkuntzako kidegoko irakasleen promozioa." Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2010eko otsailaren 5eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da kontuan har dezan, Irakaskuntzako Funtzio Publikoaren Estatutuan, lizentziatu-mailako titulazioa duten Haur eta Lehen Hezkuntzako kidegoko irakasleen promozioa

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du kontuan har daitezen, Irakaskuntzako Funtzio Publikoaren Estatutuaren negoziatioetan, lizentziatu-mailako titulazioa duten Haur eta Lehen Hezkuntzako kidegoko irakasleen promozio-aukerak, irakaskuntzako lanbide-karre-raren garapena sustatze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Justizia Jauregiko kanpo errotulazioa euskaraz ere para dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Justizia Jauregiko kanpo errotulazioa euskaraz ere para dezan eta euskarazko errotulua gaztelaniazkoaren neurri berekoa izan dadin".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Justizia Jauregiko kanpo errotulazioa euskaraz ere para dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Justizia Jauregiko kanpo errotulazioa euskaraz ere para dezala eta euskarazko errotulua gaztelaniazkoaren neurri berekoa izan dadila.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako karobien katalogoa egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako karobien katalogoa egin dezan” Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2010eko otsailaren 22ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako karobien katalogoa egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planeko 9. atalean, “Katalogoak eta Inbentarioak” izenekoan, Nafarroako karobien katalogoa sar dezan, karobi mota ezberdinen eta horiek berreskuratzeko azterlanak egiteko asmoarekin.

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako Odol Transfusioen Zentroko laborategiaren egoera azter dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako Odol Transfusioen Zentroko laborategiaren egoera azter dezan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako Odol Transfusioen Zentroko laborategiaren egoera azter dezan

1. Nafarroako Parlamentuak, Comptos Ganberak 2008ko azaroan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroaren kudeaketari buruz eginiko fiskalizazio txostenean ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak

mentua premiatzen du hiru hilabeteko epean azter dezan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroko laborategiaren egoera, osasun arloko laborategi guztiekin alderatuta, horrela sektorea antolatzeko, bultza dezan kudeaketaren eta Nafarroako laborategi-jardueren koordinazioa, eta integratu dezan gaixoei dagokien informazioa.

2. Nafarroako Parlamentuak, Comptos Ganberak 2008ko azaroan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroaren kudeaketari buruz eginiko fiskalizazio txostenean ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak har ditzan behar adina langile kualifikatu izateko urte osoan, erabiltzen dituzten teknikan beharrezkoa den esperientzia eta prestakuntza dutenak.

3. Nafarroako Parlamentuak, Comptos Ganberak 2008ko azaroan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroaren kudeaketari buruz eginiko fiskalizazio txostenean ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren baliabideez horni dezan Transfusio Zentroa, eraginkortasunaren irizpidea kontuan hartuta.

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zelulen eta ehunen banku publikoa sor dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zelulen eta ehunen banku publikoa sor dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zelulen eta ehunen banku publikoa sor dezan

1. Nafarroako Parlamentuak, Comptos Ganbe-

rak 2008ko azaroan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroaren kudeaketari buruz eginiko fiskalizazio txostenean ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen du zelulen eta ehunen banku publiko bat sor dezan, Nafarroan atera eta erabiltzen diren ehun guztiak zentralizatu eta koordinatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak, Comptos Ganberak 2008ko azaroan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroaren kudeaketari buruz eginiko fiskalizazio txostenean ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen du zelulak eta ehunak eman, lortu, ebaluatu, prozesatu, zaindu, gorde eta banatzeko jarduerak eta prozedurak foru plan baten mende egon daitezen eta urtero horri buruzko oroitidazki bat aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du N-1 eta A-15 autobietako eta N-121-A errepideko bidesari-kobrantza.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du N-1 eta A-15 autobietako eta N-121-A errepideko bidesari-kobrantza." Horren jatorria da Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2010eko otsailaren 22ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du N-1 eta A-15 autobietako eta N-121-A errepideko bidesari-kobrantza

Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du bidesaria kobratzea prestazio handiko errepide gisa diseinatu, itundu eta eginiko N-1 autobian, A-15 autobian eta N-121-A errepidean. Ondorioz, bere kezka eta kontrakotasuna adierazten du Gipuzkoako Foru Aldundiak har litzakeen erabakiei dagokionez; hau da, aipaturiko errepideetan edo Nafarroako Foru Komunitateari eragin ahalko lioketen beste batzuetan bidesariak ezartzeari dagokionez. Izan ere, beharrezkotzat jotzen du bidesari-sistemak ezartzerakoan fisikoki kokatzen direneko tokietan adostasun handia lortzea ez ezik, behar bezalako koordinazioa egotea ere neurri horren eragina nolabait jasan lezaketean gainerako administrazio publikoekin, eta horrelako erabaki bat erregioz gaindiko estrategia global baten barrenean hartzea.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako erakunde publiko guztiak premiatzen ditu laikotasunaren aldeko urratsak egin ditzaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako erakunde publiko guztiak premiatzen ditu laikotasunaren aldeko urratsak egin ditzaten".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako erakunde publiko guztiak premiatzen ditu laikotasunaren aldeko urratsak egin ditzaten

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako erakunde publiko guztiak premiatzen ditu laikotasunaren aldeko urratsak egin ditzaten, sinesmen guzti-ei errespetua adierazteko bide gisa, eta erakunde publikoen neutraltasun erlijiosoaren alde lan egin dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erakunde publikoetan dauden erlijio-ikurrak ken ditzan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait azpiegitura bukatzeko epea ezartze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait azpiegitura bukatzeko epea ezartze aldera".

Legebiltzarrak 2010eko martxoaren 11n egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko otsailaren 5eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer ari den egiten Kultura eta Turismo Departamentua Madrileko Reina Sofía Museoan egun dagoen “Encuentros de Pamplona 72” erakusketa Nafarroan ere ikusteko aukera izan dezagun.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2010eko martxoaren 10ean egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko zer ari den egiten Kultura eta Turismo Departamentua Madrileko Reina Sofía Museoan egun dagoen “Encuentros de Pamplona 72” erakusketa Nafarroan ere ikusteko aukera izan deza-

gun, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko otsailaren 5eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Arradako Kontzejuko osasun arloko zerbitzuaren egoerari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 11n egindako bileran, erabaki zuen María Chivite Navascués andreak aurkezturiko galdera, Arradako Kontzejuko osasun arloko zerbitzuaren egoerari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko otsailaren 5eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

13/2010 Ebazpena, martxoaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarena. Horren bidez, María Medina García andrea Arartekoaren ahokulari tekniko izendatzen da.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 40. artikuluan xedatutakoaz baliatuz,

EBATZI DUT

Lehena. María Medina García andrea behin-behineko langile izendatzea Arartekoaren aholkulari teknikoaren eginkizunak betetzeko. Izendapenak 2010eko martxoaren 15etik aitzina izanen ditu ondorioak.

Bigarrena. Xedatzea izendapenak dakarren gastua gastuen aurrekontu indardunaren "Behin-behineko langileen lansariak" izeneko 1100 kontusailaren kargura ordainduko dela.

Hirugarrena. Ebazpen hau interesdunari helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 2010eko otsailaren 8koa, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzeari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Akatsak atzeman dira Nafarroako Parlamentuko 2010eko Mahaiaren otsailaren 8ko Erabakiaren testuan; hain zuzen ere, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzeari buruzkoan; erabaki hori 2010eko otsailaren 11ko 12. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hori horrela, hona akats zuzenketaren testua:

Erabakiaren bigarren atalean zuzenketa hauek egin behar dira:

2. fitxategian, h) letran, honakoa dio: "Segurtasun neurriak: oinarritzko maila". Horren ordez, honako hau esan behar du: "Segurtasun neurriak: tarteko maila."

3. fitxategian, h) letran, honakoa dio: "Segurtasun neurriak: oinarritzko maila". Horren ordez, honako hau esan behar du: "Segurtasun neurriak: tarteko maila."

8. fitxategian, b) letran, honakoa dio: "Ukitutako norbanakoak eta taldeak: foru parlamentariak, kargudun publikoak eta pertsona partikularrak". Horren ordez, honako hau esan behar du: "Ukitutako norbanakoak eta taldeak: foru parlamentariak, kargudun publikoak, pertsona partikularrak eta Parlamentuko langileak."

Iruñean, 2010eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda